

BAKIO

— BIZKAIA —

Uribe eskualdean dagoen herria da Bakio, eta Bilbotik 31 km iparraldera dago, kostaldean.

Antzinako agirietan *Basigo de Baquio* izenez ageri da. Eta, gaur egun, hain zuzen ere, horixe da Bakioko auzo nagusiaren izena, herriaren sorburutzat hartzen den gunea. XX. mendean, ordura arte Bermeorenak izandako beste auzo batzuk batu zitzaizkion; esate baterako, San Pelaio eta Zubiaurralde.

XIII. mendetik aurrera ola eta errota ugari eraiki ziren Estepona ibaiaren ondoan, familia nobleen babespean, eta horietako batzuk gure egunetara arte ere iraun dute. Basigo auzoan dagoen parrokielizaz gain, hainbat baseliza daude udalerrian; besteak beste, San Pelaio, San Martín, Santa Úrsula, San Esteban, San Kristobal eta Santa Catalina.

Esta población de la comarca de Uribe está situada 31 km al norte de Bilbao, muy cerca de la costa.

En la documentación antigua fue denominado como *Basigo de Baquio*, siendo hoy el nombre de su principal barrio, considerado como el primer núcleo poblacional. En el siglo XX se le fueron añadiendo otros barrios, como San Pelayo y Zubiaurralde, hasta entonces pertenecientes a Bermeo.

A partir del siglo XIII proliferó la construcción de herrerías y molinos hidráulicos en torno al río Estepona, promovida por familias nobles, algunas de las cuales han llegado hasta nuestros días. Además de la iglesia parroquial, ubicada en el barrio de Basigo, hay numerosas ermitas en el municipio, como la de San Pelayo, San Martín, Santa Úrsula, San Esteban, San Cristóbal y Santa Catalina.

Jasokundeko Andre Maria eliza *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

GAUR EGUNGO ELIZA XVI. mendeko eraikin bat da, eta gerora gehitu zaizkion hainbat elementu ditu; adibidez, kanpandorre altua eta landa-motako ataria. Erdi Aroko arrasto bakarrak burualdean dagoen leihate batean eta gaur egun bataiarri moduan erabiltzen den kapitela batean ikusten ditugu.

Leihatea kanpotik ikus daiteke, baina apur bat aldatuta; izan ere, oraintsu beiraz hornituriko leiho bat jarri dute. Latz samar landutako erdi-puntuko arku batek eratzen du, arku hori bi inposta oso sinpleren gainera dator, eta inposta horren azpian bi kapitela ageri dira, ia lisoak biak. Baoaren barnealdean zorrotz samarrak diren bi arku multzo estu daude.

Tenplu barruan leihate hori berori hobeto kontserbatuta dago, konponketa zaindu baten ondorioz. Erdi-puntuko bi arkibolta lisok eratzen dute, eta arkibolta horiek inposta alakatu eta bi zutabe-bikoteren gainean zurkaiztuta daude. Zutabeok kapitela lisoak dituzte, batek izan ezik: sare itxurako bilbe latz batekin eta hosto eskematikoak diruditen lerro zehar batzuekin apainduta dago. Antzekoak dira kapitela hau eta Maruri Jatabeko San Laurendi marti-

LA ACTUAL IGLESIA ES UN EDIFICIO del siglo XVI al que se le han añadido elementos posteriores, como la alta torre-campanario y el pórtico de tipo rural. Los únicos restos de época medieval que podemos encontrar son un ventanal en la cabecera y un capitel que hoy cumple las funciones de pila bautismal.

Desde el exterior es posible ver el ventanal, aunque algo modificado, ya que se le ha añadido una ventana acristalada en época relativamente reciente. Está formado por un arco de medio punto bastante tosco, que descansa sobre dos impostas muy sencillas, bajo las que se encuentran dos capiteles casi lisos. En el interior del vano se aprecian dos arcadas estrechas ligeramente apuntadas.

En el interior se aprecia el mismo ventanal mejor conservado, fruto de una restauración más cuidada. Está formado por dos arquivoltas lisas de medio punto que apoyan sobre una imposta biselada y dos parejas de columnas provistas de capiteles también lisos, salvo uno de ellos que se decora con una tosca trama reticular y líneas oblicuas que parecen simular hojas esquemáticas. Este capitel recuerda por su decoración al que se conserva en el interior



Barrualdea

Interior



Kapitel erromanikoa

Capitel románico

riaren parrokia-elizan dagoena, udalerri horretako Santa Kruz basilizatik ekarritakoa.

Eliza honetan bataiarri moduan aprobetxatu den kapitela ere badago. Oso higaturik dagoen harearritzko harlandu handi baten gainean dago landuta. Gorputz prismatikoa karratua du, eskantzuak errematatuta, eta horietatik forma obalatuak irteten dira pinaburuen antzera erpinetatik dingilizka. Askoz geroago egindako harroin baten gainean dago ezarrita.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

de la iglesia parroquial de San Lorenzo Mártir de Maruri Jatabe, procedente de la ermita de Santa Cruz del mismo municipio.

En esta iglesia también se encuentra un capitel reaprovechado como pila bautismal. Está tallado sobre un gran sillar de arenisca, muy desgastado. Formado por un cuerpo prismático cuadrado, tiene los esquinales rematados, de los que sobresalen unas formas ovaladas que cuelgan de los ápices, a modo de piñas. Descansa sobre una basa de factura muy posterior.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografia

ECHEGARAY, C., 1980, p. 775; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1996, p. 116; LÓPEZ DE OCÁRIZ, J. J., 1997a, II, pp. 904, 909-910. ECHEGARAY, C., 1980, p. 775; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1996, p. 116; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, II, pp. 904, 909-910.

San Pelaio basiliza / Ermita de San Pelayo

SAN PELAIKO BASILIZARA heltzeko, BI-3101 errepidea hartu behar dugu Bermeorantz. Malda bat igo eta, berehala, metro gutxira, San Pelaioren omenez altxaturiko eraikinera helduko gara. Itsaso ondoko magal batean dago. Tradizioaren arabera, handik Donejakue Bidea igarotzen zen. I. García Caminok dioenez, agirietan azaltzen diren arrasto batzuen arabera, XI. mendean eraiki zen, 1053. urtean Bizkaiko jaunak eta haren emazteak Zianno monjeari han hurbil dagoen Gaztelugatxeko Donibane-ren monasterioa eman ziotenean. Bermeoko San Migelen omenezko monasterio bat zegoela azaltzen da XI. mendeko agirietan; doña Teclak geroago Donemiliaga Kukulako monasterioari eman zion Bakioko hau izan liteke.

Harlangaitzez egindako eraikin txiki bat da eta eskantzuetan harlanduak ditu. Oinplano angeluzuzena du, eta burualdea, zuzena. Gaur egun, zurezko ataria du inguruan, eta kanpandorre txiki bat. XX. mendean erdialdean, eraikinaren egitura, estalkiak eta hormak konpondu ziren, eta apaingarri nabarmenenak, zaharberritu.

Erdi Aroan altxatutako eraikin honetako arrasto erromanikoak dira nabearen oinetan dagoen portada bat, absidako leihate bat eta barneko garaipen-arkua.

Portada apaingarrik gabeko lau arkibolta zorrotz samarrek eratzen dute, hauts-babesarena egiten duen moldura baten azpian dago, eta seriean errepikatzen diren bolaz dago apainduta, Barrikako Andra Mariaren elizako leihatea eta Urgoitiko San Lorentzokoa bezalaxe. Apaindurarik gabeko inposten azpian lau zutabe ukondotu eta horien kapitela daude. Binaka banatuta daude alboetan

PARA ACCEDER AL EDIFICIO deberemos continuar por la carretera BI-3101 hacia Bermeo y, tras una pendiente, alcanzaremos a pocos metros la ermita dedicada a San Pelayo. Se sitúa en una ladera muy próxima al mar por donde, según la tradición, transcurría el camino jacobeo. Según I. García Camino, existen algunos indicios documentales que sugieren la fundación de este edificio en el siglo XI, cuando, en 1053, el Señor de Vizcaya y su esposa donaron al monje Zianno el monasterio de San Juan de Gaztelugatxe, situado en las proximidades. En los documentos del siglo XI consta la existencia de un monasterio dedicado a San Miguel de Bermeo, que podría relacionarse con este de Bakio, entregado más tarde por doña Tecla al monasterio de San Millán de la Cogolla.

Es un pequeño edificio de fábrica de mampostería, con sillares en los esquinales, y de planta rectangular con cabecera recta. Hoy se encuentra rodeado por un pórtico rural de madera y una pequeña torre-campanario. A mediados del siglo XX se realizaron fuertes intervenciones sobre la estructura del edificio, en sus cubiertas y muros, y una restauración de sus elementos decorativos más destacables.


Los restos románicos que se hacen visibles en este edificio de fundación medieval son una portada a los pies de la nave, un ventanal absidal y el arco triunfal del interior.

La portada está formada por cuatro arquivoltas ligeramente apuntadas, sin decoración, bajo una moldura que hace de guardapolvos y está decorada con bolas que se repiten de forma seriada, y que recuerdan a la ventana de



Kanpoalde / Exterior

Oinplanoa / Planta





Portada / Portada



Portadako xebetazuna / Detalle de la portada

eta apaingarri estilizatuak dituzte; hau da, erditik geruzatan zabaltzen dela ematen duen lerro kurbatu zentrokideko forma obaldua. Zutabeetako fusteak bi piezek eratzen dituzte, eta toru, eskozia eta plinto txiki bat duten harroien ganean daude ezarrita.

Kanpoaldetik begiratuta, saietara estu bat ikusten da burualdeko horman, zati modulatu baten ganean; harlandu handiz daude eginda biak, lisoak dira, eta apaindurarik gabeak.

Eraikinaren barrualdean, garaipen-arkuak bi eremu banatzen ditu: burualdea, estuagoa da eta ganga zorrotzez dago estalita; nabearen beste zatiak sabai modernoak du. Arkuaren profila zorrotza da, eta bi zutabek mugatzen dute. Zutabe horien kapiteletan, lehen deskribatu dugun portadan azaltzen diren moduko apaingarriak daude. Kasu honetan, apaindura sinpleagoa da: goiko angelutik eskegitako dagoen bola bat.

Baina atentzioa buruhormako leihateak ematen du: bao txarabeldu bat da, eta arkibolta liso batek eta bola-er-

la iglesia de Santa María de Barrika y de San Lorenzo de Urgoiti. Bajo las impostas, sin decoración, se encuentran las cuatro columnas acodilladas, con sus respectivos capiteles. Éstos están distribuidos dos a dos en los laterales, y tienen una decoración estilizada, es decir, una forma ovalada con líneas curvas concéntricas que parece abrirse en capas por la mitad. Los fustes de las columnas, formados por dos piezas, se apoyan sobre basas de toro, escocia y pequeño plinto.

Desde el exterior podemos ver también una estrecha saetera en el muro de la cabecera, sobre un fragmento modulado, ambos elaborados con grandes sillares pero lisos y sin decoración.

En el interior del edificio podemos apreciar el arco triunfal que divide dos espacios: la cabecera, más estrecha y cubierta por una bóveda apuntada, y el resto de la nave, con techumbre moderna. Este arco es de perfil apuntado y está enmarcado por dos columnas que presentan una decoración en los capiteles muy parecida a la de la portada



Barrualdea

Interior



Burualdeko leiboa

Ventana de la cabecera

diz apainduriko hauts-babesak inguratzen dute. Arkibolta zutabetxo-bikote baten gainean zurkaiztuta dago; zutabetxo horien harroinak bolaz apainduta daude erpinetan, eta kapiteletan portadako forma berberak errepikatzen dituzte. Fusteak korapilo eta motibo geometrikoz daude apainduta, euskal erromanikoan eta Burgos iparraldean gustatzen zitzaizen moduan. Antzeko apaindurak dituzte Fruizko San Salvadorreko portadak eta Zumetxagako San Migeleko leihateak, eta, beraz, XII. mende amaierakoa izan liteke

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI - Planoak: MDRF

descrita anteriormente. En este caso, más sencillo y con una bola que pende del ángulo superior.

Pero la atención se centra en el ventanal del testero, formado por un vano abocinado rodeado por una arquivolta lisa y un guardapolvo decorado con medias bolas. La arquivolta descansa sobre una pareja de columnillas provistas de basas decoradas con bolas en los vértices y capiteles que repiten las mismas formas que los de la portada. Los fustes se decoran con entrelazos y motivos geométricos, muy del gusto del románico vasco y del norte de Burgos. La correspondencia más cercana puede establecerse con la portada de San Salvador de Fruiz y la ventana de San Miguel de Zumetxaga, por lo que su cronología podría encuadrarse dentro de los años finales del siglo XII.

Texto y fotos: JCE/MLAI - Planos: MDRF

Bibliografía / Bibliografía

BARAÑANO LETAMENDIA, K., 1984, pp. 263-273; BARRIO LOZA, J. A., 1979, pp. 57-60 (fig. p. 100); BARRIO LOZA, J. A., 1990, p. 73; BASAS, M., 1982, p. 34; GARCÍA CAMINO, I., 2002, pp. 405-406; GAYA NUÑO, J. A., 1944, pp. 37-39; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1996, pp. 110-111, 120, 124; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 147-148; GUDIOL RICART, J. y GAYA NUÑO, J. A., 1948, p. 337; LLERA, I., 1909, pp. 273-279; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, II, pp. 904, 909-910; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 46-47; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 881-882; LÓPEZ DOMECH, R., 1985, pp. 20-21; LORENZO, F., 1987, pp. 15-21; YBARRA Y BERCÉ, J. de, 1958, pp. 245-246.